



# NON DA EZKERRA?

Irekitasunaz eta zabaltasunaz mintzo zaigu Gobernu berria. Loreak goizeko ihintza bezala hartzen dute gure belarriek asmo berri hau. Aspaldidanik itxetodan genuen zerbaite agindu zaigu. Inoiz heltzen bada ez diegu ezkerrik emango, meski.

Agian gure artean baino itzaropen gehiago biztu du heste leku batzuetan agindu honek. Dagoeneko hasi dira pentsatzen eta idazten zer nolako harremanak beharko lituzkeen Gobernuak aurkako taldeekin. Ezkerrez garbiago esateko. "Indice"k "nueva frontera" deritzan lantxo bat argitaratu du. "Pueblo"k, berriz, "Indice"ren lantxo hori argitu nahi du "non da ezkerria" deiturikoan.

Beharrezkoa du hauen uestez Gobernuak ezkerrez dialektikazko harremanetan jartzea. Hitzez behintzat agintariak ez omen dizkiote ateak itxi ezkerriari. Ez omen dira, beraz, ezinezkoak harremanak.

Baina horretarako eskuinak non den ezkerria jakin behar omen du. Horregatik galdatzen du idazlanaren egileak "non da ezkerria?". Ez omen da non dagoen garbi ikusten. Ez omen dago ezkerriat hartzerik, ez burokratariak, ez bere kontura lanean ari denik, ez burulanean diharduenik, are gutxiago elizgizonik, nahiz eta oso aurreratutariak izan.

Ezker bakarra eskulanean ari den langileak omen da. Baina ezker hau ez omen dago behar bezala taxutu eta gorputzua. Jakina, honetan ez omen du langileriak ezeren errurik. Behar bezalako elkarriketarako lehenik, ezker hau hezuramamitu egin behar omen lituzteke. Bienbitartean ez luke aurkako egiazko talderik aurkituko.

Ez omen luke ezer lortuko dagoen ezkeriaz izan dezakeen harremanak. Burgeskumez, burgesen ondakinez, osaturik omen dago ezker hau nahiz sistemaren barruan gutxi asko onarturiko ezkerria izan, nahiz sistemak bazterturikoa izan. Honekin ez omen luke gizon hauen nortasuna eta balioa gutxitzeki nahi, adarrak zuhaitzak bakarrik ematen dituzela adierazi baitzik.

Gaurregun gustagarria omen zaigu ezker deitua eta denek izan hiru jartzen omen ditugu geuren buruari gutxienez ere "ultro" eta ik bereizteko. Baina "ezkerria" bera ere buruntzaxago eta hornuntzaxago gerta omen daiteke. Beti norbitan ere zerbitzen ezkerrean omen dago. Bai omen da eskuinaren ezkerria ere. Eta askotakoa izan omen daiteke ezkerria.

Gure arteko ezkerria, ordea, ez omen da egiazkoa, gezurrezkoa eta ametsezkoa baizik. Ez omen gaitu inora eramango ametsezko ezker honekin Gobernuak eduki ditzakeen harremanak.

Guk ez dakigu egiazko ezkerria gorputzurik dagoen ala ez. Ezeko susmoa dugu guk ere. Ez bait du hezuramamitzeko eta gorputzeko egokierarik eta biderik izan. Halere baduela uste dugu elkarriketarako talderik. Herri desberdinez osaturiko estadiuan bizi gara. Badute herri hauek elkarriketarako adina nortasun eta gorputz. Fruitu onak emango lituzke herri hauekiko harremanak. Gobernuaren irekitez eta zabaltze horretan urrats eta pauso haundia lituzke herri bakoitzaren eskakizun, premia eta arazoekin elkarriketaratzea.

Madrilgo ezkerria edo ezker ustekoa, honetaz ez da jabetu oraindik. Ezta hemengo zenbait ere, zoritzarrez. Eskuinaren itxutasuna salatuz eta desegin nahirik dabil borrokan. Baina eskuinta bezain itxi gertatzen eta bilakatzeko da. Marxdar asko ez da oraindik jabetu herrien izaeraz, balioaz, nortasunaz. Eskuinaren arrisku berean jasua dago. "Inferio" zale da. Ez dio herrien arazoak buruko minik ematen. Ez da herrien desberdintasunak izan dezakeen aldatzuntza-ondarraz ohartu. Bide okerrera daraman bihozkatatzen josten du herriazetasuna. Ez du uste gizarite herriazeko, askatzeko eta zuzentzeko iturri bizi gerta daitekeelarik.

Indarrak sakabanatzeak, batasuna zaitzeko, alferrikako eta kaltegarriko etsaieriak bizitzeko dela uste dute nola eskuinta ala zenbait ezkerrek. Eta herriazetasuna ez da inolaz ere indarrak sakabanatzeak, batasuna zaitzeko eta kaltegarriko etsaieriak bizitzeko, alderantziz baizik.

Herrien nortasuna aitortzeak dakar indar bortitza, egiazko batasuna eta adiskidetasuna. Hori aitortu ezik ez daiteke zinezko berdintasun, senidetasun, askatasun eta demokraziaren oinarririk jar.

# Soljenitsine eta Erostrato

Alexandre Soljenitsine U.R.S.S.-etik kanporatuak Nork ez du hau entzun? Nork ez du oraindik horren berrik izan? Nork ez du dagoeneko bere iritzia eman?

Alferrik lituzteke, beraz, ni neu ere Soljenitsinez hemen mintzatzeko. Nork ez du ene aburua sumatzen, bestalde, gertakari horretaz? Zeharo nago erabaki ahalkegarririk horren kontra. Zalantzarik ez. Zeren-eta egia ofiziala, erresumen aparatua guztia, ekonomia, prentsa, eskola, unibertsitatea, armada, den-dena goitik behera eta arras 57 urtez kontrolatu ondoren, idazle bakar baten nobela batzuek dena honda, edo koloka utzi, badezakete, sozialismo horren gezurra haren ahuzeia harrigarriak berak salatzen du; eta ez dugu inolaz ere geuretzako nahi. Soljenitsine-aren arazoaren aurrean gertaturik, nork egiten du burgesiaren jokoa: Soljenitsine-aren jautieria gaitzesten dugunok, ala jautieria hori onartzen dutenek?

Bapatean hau entzuten dugu, ordea: Soljenitsine oso aberatsa dela. Hots, Mendebaldean Soljenitsine-aren interesak zaintzen dituen Fritz Heeb delakoak, hauxe jakinerazi du berriki: «Mendebaldean argitaratu dituen nobelen aldetik, ez duela Soljenitsinek sosik sekula bildu. Koberatu duen diruketa bakarra hau da: Nobel-Sariaren parte bat. Soljenitsineri, bestalde, bost axola zaio dirua; eta ezertxo ere ez jaso nahiago du. Hain zuzen ere, baliteke bere idazle-eteekin horiek guztiak egunen batez gizar elkar-terean berak eskuetan jartzea». Moskuko Idazleen Elkarteak aberastu ote du beraz 1969az gerotik bota zuten idazle madarikatua?

Soljenitsinearen ausardia (Siberian urte luzetan barrera zigortua) «probokazio»-tzat salatu dute batzuek; eta stalinismoaren kritika, sozialismoaren kontrako herra gisa aurkeztu. Zergatik ordea? Trotsky, Marcuse, Sartre eta Cohn Bendit ez dira leunago izan stalinismoaren kontra. Hortaz?

Soljenitsine kristau sularra omen da. Honengatik ez besterengatik, ordea, inor afuslatu behar denik ez dute uste. Ez gaitzen eror beste muturreko Inkisizioa! Nori bere Fedea eta bere errespetua. Zeren-eta, nork du Egia?

Soljenitsinek hau idatzi du: «Guztiz da Kondaira arrazoi-bideetatik al mamitzen den bilakabide bat» («un procès éminemment irrationnel»). Eta hau ez zaio barkatzen. Baina Levi Strauss-ek ia hitz berak idatzi ditu. Eta Hegel filosofo bat da, besterik ez.

Soljenitsinek hau ere idatzi du: «Erusiako literaturaren ezagugarri-rik nabarmenena hauxe da aspaldidanik: jasaten dituenekiko bere jokabide berezia... Ikusten dituen bezala esan behar ditu gauzak idazleak». Eta hau ere ez zaio barkatu; egia esan ala ez esan agintaritzak erabaki behar omen du-ta.

«Minute»k eta fazista guztiek le-ta handitan aipatzen dute gaur Soljenitsine; eta honek nardatu egiten gaitu. Chilez ez baitute horiek ezer esaten. Baina Lukacs marxista ere guztiz mintzatu zen goraki Soljenitsineren alde. Aste hauetako giro herri hau, beraz, oso joera berezi batetan eta ez beste inun nagusi, nork eroin du eta zertarako? Nork nahi ditu bat sozialismoa eta stalinismoa?

Soljenitsine, halere, sosik bate-re gabe baldin badago ere, aberri-rik gabe gelditu bada ere, horren maite dute bere Errusia gabe bizi beharko badu ere, halako kontso-labide edo aringarri bat bederen badu: Erostrato-rena. Eta hau ez omen da kontsolagarriapurra.

Jakina denez, bere burua hilez-ko eragin nahiz, Efesoko Artemis-en eliza sakratua erre zuen Erostratok Grezia zaharrean; eta ekinntza ho-rreretan, espero zuten bezalaxe, bizia galdu zuten. Hilezkortasuna lortu zuten, ordea; gaur ere Erostrato nor zen badakiku. Hots, hauxe izan zen haren erretakaren karkoa. Erostratok, gosta ala gostarik, gizonen oroimenean bederen nahi zuten bizi.

Soljenitsinek bere burua txalotu-ta ikusten du, bere irudia mundu guztiko kasetetan topatzen. Soljenitsinek, hitz batez, gaur bederen, badu Erostrato-ren kontsolabidea: hilezko agertzen da, ospea bitlzen du bazter askotan.

Inolaz ere, beraz, Soljenitsineren ohorea eta merezimendu gaitzak nik deusetan tipitu nahi izan ez arren, Erostratoren kontsolagarri-rik gabe beren herri-rik kanpoatuak di-ene gijazo apal ez-egunak gogora-zi nahi nituzke.

Palestinarrak aurren-aurrenik, noski. Baina baita Prusiarrak, baita Tataroak, baita Tibetarrak; baita lanik ezaz apalki eta isil-isilki be-ren sorterrira utzi behar duten ho-riek. Hauek ohorerik gabe itzaltzen baitira atzerrian; bortxaturik dese-rriratzen baitira. Eta nehorik ez bai-taki deusik ere beren trajeriak.

Baina are bertago ditugun dese-rritutako horietaz zer esango? Geure anaiek ditugun Soljenitsine-horietaz zer? Zer dago erdiragaria-rik dena eskaini eta eman, du-ena, bere etxekoek berek zekoratu-rik, iraindurik eta ukaturik topatze-a baino? Zer dago bihotz-urragaria-rik, irakurle, dena utzi duten Sol-jenitsine ez-egun horiek dena

utziagatik ere, gaur eta beti ahoz-tuak eta ez-egunak izango direla jakinik ere, inolako kontsolagarri-eren esperantzarik gabe, tonk aurkitze-a baino?

Soljenitsinek dena arriskatu du; baina badakigu. Beste horiek er-dea, aurtikiak izan dira, lur gorri-entzan dira, oker ala zuzen; eta ez dugu jakin nahi. Zeren-eta askoz errazagoa baita beti urrongoaren al-de agertzea, bertako samaritano-aren alde baino.

Horra hor egia latza. Eta Ero-strato-ren kontsolagarri-rik dago haientzat; eta ongi dakite. Horiek, horretara, txikiagatik direlako, han-diago zaizki Soljenitsine bera baino.

Orain arte, ordea, hauxe baizik ez dute entzuten farisau super-pe-kteoengandik: utikan zoro!k! Eta muzin ituski batez bazkaldege-rik sartzen ikusi ditugu irribarrez, eta be-ren buruetan zindo.

LARRESORO

## Lana, lagilea, lantegia

# EXTRAK

Eguneroko lan orduz kanpora sar-tzen diren beste ordu horietaz, ex-tra orduetaz, halako gogoetak sor-tzen zaizkio gaurregun langileari.

Edonorak badu, zortzi ordutako la-naldia lortzearen, langileriak izan dituen borrokan berri. Ia ia mende r'erdiko borroka izan dela esan ge-nezake. Horko huelgak, hango age-rukide edo manifestazioak, hemen-go tiro hotsak, haruntzagoko barri-kadak, hainbeste langileak isuritako odola... zortzi ordutako lanaldia lort-zearen emanikoak dira. Alferrik emanik ote dira?

Garai batetan militarren harmak, egintadunen erasoak, indardunen zapalkuntzak lortu ez duena, orain, besteak beste, kontsumo propagan-da tresnek lortuko ote digute?

Zortzi ordutan irabazten duenaz bakarrik ez dezake langileak nola-nahi irauti. Zortzi ordutako lanez bere behar premiatsuenak ase eta bete ditzaketen langileak oso gutxi dira. Gauzez gora ari dira. Diruak tximiniko keak baino gehiago ez digu irauten. Zer egin? Nola joko?

Honetaz gain, propaganda merio delarik, geure beharrak ezin mugatu-rik gaitzeta. Gasolina garestitu be-rria izanaren ingande eta oporke-taldirako auto bat eskuratzen, zergatik ez saia? Zahartu samarturik daukagun laboratoraren ordez «telek» proposatzen digun azken modako automatikoa zergatik ez eros? Lan-gileok oporraldietan kanpora egun batzuk igarotzea zer dela eta ez gara joango? Urtean behingogaitik, langileak ez ahal du hainbeste es-kuibide? Pertsona garezte gero eta beste edonor bezala jatzeko esku-bidea badugunez, modak eskatzen duenaren arabera zergatik ez jan-tzi?

Orain sos batzuk irabazteko mo-dua dugunez, sar ditzagun ordu ex-tra, zenbat eta gehiago hobea. Ko-bra dezagun gehiago, gehiago gas-tatzeko modurik izango dugu eta. Ordu-rik ez dagoen garaian «aguan-tau» eta kito.

Kooperatibetan beretan ere, diru metatzea dela kausa eta, kapitali-zatzea, langileriak ordu extrak sar-tzea ez dut batere garbi ikusten. Egoera berezi batek horrelakorik es-ka badeza, tira. Baina norma be-zala, langileen ordu extraz baliat-urik diru metatze horri ez deritzat ongi.

Lantegiak langilea behartu ahal dezake ordu extrak sartzea? Hau-e da askok geure buruari egin izan diogun galdera. Ordu extrak sar-tzeari uko egingo balaitza lante-

giak langilea horretara behartu ote lezake?

Zen dira lantegiak, horretarako, bete behar dituen baldintzak? Lan-gile batek ordu extrarik sartu nahi izan ez zuelako, langile berori lan-tegitik al bidaltzea bidezkotzat jo zuten Magistraturak 1971 azaroan. Baina Tribunal Supremo delakoak, 1973 urtean maiatzaren 16an eraba-ki zuenez:

a) Lantegiak ezin dezake langi-lerik bidal.

b) Kanpora bidalia berriro har-tu behar du, edo bestela, lantegi hori 50 langilez gorakoa denez 60.000 pezeta ordaindu beharko diz-ki.

d) Hauzia dela eta lanik egin gabe pasa dituen egunak ordaindu beharko dizkio lantegiak.

Ez gaituzue lege arazoez egiazki jakintsu. Halere, irakurri dugunez, eta goi mailako hauzitegiak di-nez, ordu extrak sartzea ez daite-ke nehor behartu, hori guztia, langileak eskatasunez onartu behar duen zerbaite baita.

MIKEL UGALDE



Zuzendaria:  
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Ara-goiko Kaputxinoko argitara-tua. (Kale Nagusia, 50-1) Bur-lada - IRUINEA).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:  
Barruan 350 pezeta  
Korreo batasune-tako herrietan 400 pezeta  
Aterrietako bes-te herrietan 420 pezeta  
Airez Aldez surret-iki galdetu

Salfmenta (ale bakoitza) 8 pezeta

Moldiztegia eta Idazkoka:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1. IRUINEA  
D. L.: NA. 80-1963